



XEBASTIEN IHIDOY

Hitz huni emana nion lehen titulua hau zen: IHIDOY-ek utzi gaitu! Bainan ez dut uste IHIDOY-ek utzi gaituenik. Iragan uztaile ondarrean zendu Bernardin DUNATE apezak bere familiari idatzirik utzia zuen bezala, bera hil eta sekulan baino gehiago bere familiaren inguruan geldituko zela. Sainduen partaliertasunean sinesten dugula diogunean hori dugu aitortzen. Dunate apezak, denborak hingatzen ez duen gerla aitzineko materialari konparatu nuen, hain baitzagon fermu, segur eta kasik lorios bere betiko hartan!

XEBASTIEN-en bizia ez dut aski hurbildik ezagutu eta segitu nor zen zinez erraiteko. Bainan gertakari bat gogoan dut. Nabarrenkoseko (Navarrenx) erretor zen orduan. Arrats batez han gertatu nintzan eta ohartu SANTIAGORA (Konpostela) zoazin beilariek beren gaua Xebastien apezetxean pasa zezaketela eta ez bakarrik hori, beren jatekoa prestatzeko sukaldea bere tresna edo

instalazione guziarekin ibiltzen ahal zutela. Horrek jo ninduen. Etxea, eta oroz gaineratik euskaldun batek, ez du hola idekitzen, bertze bati, eta hemen ezezagun bati, etxeko gakoak emaiten. Holako egitate batek predikurik ederrena balio du. Erakusten du Xebastien ez zela mundu huntako ontasuneri estekatua eta hori bertute ederrenetarik dela daukat.

Bada bertze zerbait IHIDOY apezak aipatzean gogoratzen zaukuna: haren irri gozo, eder, iguzkitsua aitzinean zuenari, nornahi izan zadien, erakusten ziona maitatua izatea merexi zuela. Jainkoak, Bibliak dioenez, kreazionea bururatu eta ONA atxeman omen zuen. Uste dut Xebastien IHIDOY-ren mezua ere hori geldituko dela, mundu hunek baduela gaitz guzien artetik zerbait eder eta ON!

Iragan igandean Zuraiden ginen meza andrea eta biak. Hil berria berriki jakina ginen eta pentsatzen ginuen meza emalea inarrosirik utziak gintuen gertakari hori aipatuz hasiko zela. Ez batere, meza eman du, usaiako meza hura, eta bakarrik otoitzak bururatu eta eman berria. Neretzat egitate horren erranahia hau da -eta gure erretor JAUREGI jaunak badaki gauzarik sakonek hitz edo keinu gutiz adierazten- beraz gure erretorak zabaldu mezua hau zen: Xebastien IHIDOY-ren heriotzea gertakari garrantzitsu bat izan arren, lehen gelditzen zela Jainkoa eta gehienik konda zela hau laudatzea eta eskertzea zenduaren bizi eder eta emankorarentzat.

Mixel ITZAINA